



FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA, NAFARROAKO JUSTIZIA KONTSEILUA SORTZEN DUENA

PARTE-HARTZEAREN GAINEKO AZKEN TXOSTENA

Aldez aurreko kontsulta.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatu zen, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jaso nahi baitzen zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen pertsonak eta ordezkaritza handieneko erakundeak, honako hauei buruz:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Aldez aurretiko kontsultan, herritarrek parte hartzeko aukera zuten, iradokizunak aurkeztuz 2020ko abuztuaren 4tik 25era bitartean. Jendaurrean egon den epean ez da iradokizunik aurkeztu.

Foru dekretua prestatzeko prozedura abiaraztea.

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren irailaren 14ko 24/2020 Foru Aginduaren bitartez abiarazi da Nafarroako Justizia Kontseilua eratzeke foru dekretua prestatzeko prozedura. Halaber, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuko Justizia Zuzendaritza Nagusia eta Idazkaritza Tekniko Nagusia izendatu dira proiektuaren prestaketaren eta prozedura horren organo arduradun.

Entzunaldia eta parte-hartzea.

2020ko irailaren 14an Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idazki bat igorri zuen eta hartan adierazi Nafarroako Justizia Kontseilua sortzen duen foru dekretuaren proiektua jendaurrean jartzeko tramitea ireki zela. Idazki horren hartzaile interesdunak, hauexek: Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusia, Nafarroako Fiskaltza, Iruñeko, Lizarrako, Tafallako eta Tuterako abokatuen elkargoak, Nafarroako Prokuradoreen Elkargoa, Nafarroako Gizarte

Gradudunen Elkargoa eta Nafarroan Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen batzordean ordezkaritza duten sindikatuak.

Foru dekretuaren proiektua jendaurrean egon da 2020ko irailaren 21etik urriaren 9ra arte, eta ez zaio inongo ekarpenik egin.

Iruñean, 2020ko azaroaren 29an

IDAZKARI TEKNIKO NAGUSIA

Sinadura jatorrizko dokumentuan dago